

**2023KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2023ko maiatzaren 30ean arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

\*2023-04-25eko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

\*2023-05-02ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO APIRILAREN 20TIK 2023KO MAIATZAREN 24RA (2023/103 - 2023/139).**

Alkatetzak 2023ko apirilaren 20tik 2023ko maiatzaren 24ra bitartean (2023/103 - 2023/139) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- DIRULAGUNTZEN OINARRIEN ALDAKETAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du herritarren eskubideak eta 39/2015 administrazio prozedura legeak behartuta egin beharreko aldaketa bat dela. Testuak jasotzen duen aldaketa bakarra elkarreraginkortasun prozedurak aurrera eramatea. Aldaketa honen ondorioz herritarrak ez ditu orain arte eskatzen zaizkion ziurtagiri eta paperak aurkeztu beharko.

EAJ-PNVko zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du, hauteskondeak pasa berri eta udalbatza funtzioetan egonda ea posible da neurri honetako erabakia hartzea.

Jarraian, Idazkariak adierazi du, legeak behartzen duen aldaketa dela, ez duela orain arteko dirulaguntzetan inongo eraginik kudeaketan ezik, ez dira diruguntzen xedeak eta epeak eta norgehiagoko eman beharreko baldintzak aldatzen. Alde horretatik, elkarreraginkortasuna eta herritarrei dokumentazioa ez eskatzea dela helburu bakarra. Halaber, erabaki honek ez du gehiago bereziki beharrik onartzeko, beraz, era bat zilegi da erabakia onartzea.

#### **ERAGITEN DUEN DIRULAGUNTZAK:**

1. Irurako herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak.
2. Iruran hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat lokalaren alokairurako diru-laguntzaren Udal Ordenantza.
3. Irurako udalerrian Haurreskolak Partzuergoan matrikulatutako haurren familiei dirulaguntzak emateko oinarriak.
4. Irurako udalerrian, haurrak Ikastetxeetan, HH, LH edo DBHn matrikulatuta dituzten familiei, irteeretarako dirulaguntzak emateko oinarriak.
5. Irurako udalerrian, desgaitasuna/mendekotasuna izan eta tratamendua behar duten pertsonen familiei edo interesatuei dirulaguntzak emateko oinarriak.
6. Irurako udalerrian ura, zaborra, saneamendua eta Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren ordainketari aurre egiteko herritarrei dirulaguntzak emateko oinarriak.
7. Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarriak.
8. Udako Euskal Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko udako euskarazko ikastarotarako dirulaguntzak emateko oinarriak.

#### **ALDAKETA PROPOSATZEN DEN ATALA:**

##### *Eskabideak aurkeztea.*

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, deialdian jasotakoari jarraiki, Irurako Udalaren bulegoetan eskuragarri jarriko den eskabide eredu ofiziala aurkeztu beharko dute.

##### 1. Dokumentazioa:

Irurako Udalak, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (NISAE) edo bitarteko telematikoen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan

##### *Presentación de solicitudes.*

Las personas que deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial que se pondrá a disposición en las oficinas del Ayuntamiento de Irura en la forma establecida en la convocatoria.

##### 1. Documentación:

El Ayuntamiento de Irura consultará a través de plataformas de intermediación de datos (NISAE) o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de

daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Irurako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu, dirulaguntza hau eskuratu ahal izateko, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (NISAE) edo bitarteko telematikoen bidez:

- Eskatzailearen NAN edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- PFEZ kontsultatzea.
- Lan-Bizitzaren kontsulta.
- DSV eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak kontsultatzea.
- Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta.
- Foru Aldundiaren desgaitasuna egiaztatzeko ziurtagiria.
- Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen erantzukizuneko adierazpena.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Iruña va a verificar los siguientes requisitos, para poder acceder a dicha subvención, a través de plataformas de intermediación de datos (NISAE) o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes:

- DNI o documento equivalente de la persona solicitante.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Consulta de IRPF.
- Consulta de Vidal Laboral.
- Consulta del DSV y Prestaciones Económicas de Vivienda.
- Consulta de Renta de Garantía de Ingresos.
- Certificado de la Diputación Foral que acredite la discapacidad.
- Declaración responsable de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

#### 4.- IRURAKO UDALA ETA ZAHARREN BILTOKIA ELKARTEAREN ARTEKO HITZAR- MENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta aurrekariak azaldu ditu, halaber, Irurako dirulaguntzen plan estrategikoan jasoa dago. Jarraian bozkara pasa dira.  
Hitzarmenak honela dio:

<p><b>DIRU LAGUNTZA IZENDUNA IRURAKO ZAHAR ETXEARI BIDERATZEKO HITZARMENA, JARDUEREN PROGRAMA GAUZATZEKO HELBURUAREKIN</b></p>	<p><b>CONVENIO PARA LA CANALIZACIÓN DE LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A FAVOR DE LA ASOCIACION “IRURAKO ZAHARREN BILTOKIA” PARA LA REALIZACIÓN DEL PROGRAMA DE ACTIVIDADES</b></p>
<p>Iruran, sinaduraren egunean</p>	<p>En Irura, a fecha de la firma</p>
<p><b>ELKARTURIK</b></p>	<p><b>REUNIDOS</b></p>
<p><b>ALDE BATETIK: Gorka MURUA MAKUSO</b> Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, Udalaren izenean eta ordez, eta ekintza honetarako behar bezala ahaldunduta Udalbatzaren 2023eko ren ko akordioz.</p>	<p><b>DE UNA PARTE: D. Gorka MURUA MAKUSO</b>, en su calidad de Alcalde-Presidente del Ilte. Ayuntamiento de Irura, actuando en nombre y representación del mismo y debidamente facultado para este acto por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de de de 2023.</p>
<p><b>BESTE ALDETIK: Marimi UGALDE ZABALA anderea, 15115978X</b> NAN zenbakiarekin, Zaharren Biltokia merkataritza-entitatearen izenean eta ordez (aurrerantzean onuraduna), IFK:G20419370, helbidea Share kalea 7an duena, elkartearen idazkariaren ziurtagiri bidez ordezkariatza egiaztatuz.</p>	<p><b>DE OTRA PARTE: D. Marimi UGALDE ZABALA</b> con D.N.I. nº 15115978X, actuando en nombre y representación de la Entidad Zaharren Biltokia (en adelante beneficiario/a), C.I.F/NIF: G20419370 con domicilio en Share Kalea 7, que acredita su representación mediante certificado del secretario de la asociación.</p>
<p><b>ADIERAZI DUTE</b></p>	<p><b>MANIFIESTAN</b></p>
<p>Hitzarmen honen xedea Irurako Udalaren indarreko aurrekontuan jasotako diru-laguntza onuradunari bideratzea dela, 1.0000.481.231.0000 partidaren barruan, zuzkiduraren zenbatekoa 4.000€-koa izanik 2023rako.</p>	<p>Que la finalidad del presente convenio es canalizar a favor de la asociación beneficiaria la subvención que figura en el vigente presupuesto del Ayuntamiento de Irura dentro de la partida 1.0000.481.231.0000, siendo el importe de la dotación de 4.000 € para 2023.</p>
<p>Halaber, onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak eta konpromisoak ezartzea du xede.</p>	<p>Así mismo, tiene como objetivo establecer las condiciones y compromisos que asume la asociación</p>
<p>Hasiera batean hitzarmena hau lau urterako izango da, 2023tik 2026ra.</p>	<p>En principio, este Convenio tendrá una duración cuatrienal de 2023 a 2026.</p>
<p>Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 artikulua xedatzen du Estatuaren, Autonomia Erkidegoen edo Tokiko Erakundearen Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, Hitzarmenetan eta diru-laguntza horien araudi erregulatuaz jaso diren baldintzetan; bestalde, 28.</p>	<p>Que la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS) dispone en su artículo 22.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos generales del Estado, de las Comunidades Autónomas o de las Entidades Locales en los términos recogidos en los Convenios y en la</p>

<p>artikuluak ezartzen du hitzarmenak izango direla diru-laguntza horiek bideratzeko tresna ohikoa.</p>	<p>normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 28 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.</p>
<p>Bestalde, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudiaren 66. artikulua aurreikusten du kasu horietan emakida-egintzak edo hitzarmenak emakidaren oinarri arautzaileen izaera edukiko duela, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean jasotako helburuetarako, eta haren edukia zehazten du.</p>	<p>Por su parte, el Reglamento de la Ley General de Subvenciones (RLGS) en su artículo 66 prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Ley General de Subvenciones y determina el contenido del mismo.</p>
<p>Halaber, Irurako 2022-2024 dirulaguntzen plan estrategikoan jaso dago dirulaguntza hau ematearen aldeko erabakia.</p>	<p>Asimismo, el Plan estratégico de subvenciones de Irura 2022-2024 recoge la decisión de conceder dicha subvención.</p>
<p>Hala ere, elkarre onuradunak adierazi du ez dagoela Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. Artikuluan adierazitako kasuetako batean ere.</p>	<p>En todo caso, la entidad beneficiaria, declara que no se halla incurso en ninguno de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003.</p>
<p>Hori horrela, aipatu diren xedeetan ezarritakoarekin adostasunean, bi aldeek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, oinarri hartuta honako</p>	<p>Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se regirá por las siguientes:</p>
<p><b>KLAUSULAK:</b></p>	<p><b>CLAUSULAS:</b></p>
<p><b><u>LEHENENGOA.</u></b>- Araudi erregulatzailerak</p>	<p><b><u>PRIMERA.</u></b>- Normativa reguladora</p>
<p>Diru-laguntza honen emakida arau hauen pean egongo da:</p>	<p>La concesión de esta subvención está regulada por:</p>
<p>Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea.</p>	<p>La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones</p>
<p>Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; horren bidez, ontzat ematen da Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudia.</p>	<p>El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.</p>
<p>Irurako Udalaren Diru-laguntzei buruzko Araudi Orokorra, udalbatzak onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.</p>	<p>La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Irura, aprobada por el Pleno Municipal y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p>
<p>Irurako dirulaguntzen plan estrategikoa 2022-2024.</p>	<p>El Plan estratégico de Subvenciones de Irura 2022-2024</p>
<p>Hona hemen Hitzarmenean jasotako klausulak.</p>	<p>Las cláusulas contenidas en el presente Convenio.</p>
<p><b><u>BIGARRENA.</u></b>- Bi aldeek adostu dute onuradunak aurrera eramango duen Share kaleko 7 zenbakidun zahar-etxeko jardueren programa finantzatzeko bideratuko dela diru-laguntza.</p>	<p><b><u>SEGUNDA.</u></b>- Ambas partes convienen que la subvención se destinará a financiar la realización del programa de actividades del hogar de jubilados/as, sito en local de Share Kalea, 7 a desarrollar por parte de el/la beneficiario/a.</p>
<p><b><u>HIRUGARRENA.</u></b>- Aurrekontuaren zenbatekoa eta kreditua.</p>	<p><b><u>TERCERA.</u></b>- Cuantía y crédito presupuestario.</p>

Oroharreko prezioan emango den diru-laguntza 4.000 eurokoa da, Udalaren indarreko aurrekontuaren 1.0000.481.231.0000 partidaren kargura.	La cuantía de la subvención que se concederá a tanto alzado asciende a 4.000 euros, imputado a la partida 1.0000.481.231.0000 del vigente Presupuesto de la Corporación de 2023.
Hurrengo urteetan (2024, 2025, 2026) kopurua berdina izango da: -2024: 4.000 € -2025: 4.000 € -2026: 4.000 €	En el resto de los ejercicios de 2024, 2025 y 2026, tendrá la misma cantidad: -2024: 4.000 € -2025: 4.000 € -2026: 4.000 €
<b><u>LAUGARRENA.- Emakidaren baldintzak.</u></b>	<b><u>CUARTA.- Condiciones de otorgamiento.</u></b>
<b>Diruz lagundu daitezkeen gastuak:</b>	<b>Gastos subvencionables:</b>
Diruz lagundu ahal izango dira, eskusiboki, honako gastu hauek.	Serán subvencionables, exclusivamente, los siguientes gastos.
Prebentziozkoak (tailerrak eta ikastaroak. Ikastaroak eta jarduerak aurrera eramateko materialak, marka arautuak, bertaratze iraunkorreko helduen matrikulak, hitzaldiak).	Preventivas (talleres y cursos. Materiales para el desarrollo de cursillos y actividades, marchas reguladas, matrículas de asistencia permanente de adultos, charlas).
Kulturalak (hitzaldiak, eguneko txangoak, museoetara bisitak, erakusketak, antzerkia, film-emanaldiak, kontzertuak).	Culturales (charlas, excursiones de un día, visitas a museos, exposiciones, teatro, proyección de películas, conciertos).
Aisialdikoak (dantzak, festak, oroi penak, txapelketak, sariak, adinekoei omenaldiak).	Recreativas (bailes, fiestas, conmemoraciones, campeonatos, premios, homenajes a personas mayores).
Hala eta guztiz ere, diruz lagunduko diren gastuek muga hauek izango dituzte: -Prebentzio eta belaunaldi arteko ekintzak: %90. -Ikastaroak eta jarduerak egiteko materialak: %50. -Txangoetarako autobusa: 550€ (bidaia bakoitzeko). Txangoetako bazkaria: 6 €/partaideko. -Museo, erakusketa, kontzertu...: gehienez 8€ partaideko. -Ospakizunak (omenaldiak, merienda, txokolatadak): %25. -Aisialdi-jarduerak (dantzaldiak, festa, joko txapelketa): %50. Udalak eskatuta, 3. Adinekoen ekintzaren baten gasturik izanez gero: %100. IZENPE txartelaren kudeaketa udalak egingo du eta gastuaren %100 diruz lagunduko du. Ez dira diruz lagunduko: opariak, gabonetako otarreak, loteria, mezak, telebista-kate digitaletara harpidetzak.	En todo caso, los gastos a subvencionar tendrán los siguientes límites: -Actividades preventivas e intergeneracionales: 90%. -Material de cursillos y actividades: 50%. -Autobús de excursiones: 550€ (por cada viaje). Comida excursiones: 6€/participante. -Museos, expos., conciertos: máx. 8 euros (participante). -Celebraciones (homenajes, merienda, chocolatada...): 25% -Actividades Ocio (Bailes, fiestas, campeonatos): 50% Si hubiera algún gasto generado por alguna actividad para 3. Edad solicitada por el Ayto.: 100% La gestión de la tarjeta IZENPE la realizará el Ayto. y subvencionará el %100 del gasto. No se subvencionarán: regalos, cestas de navidad, lotería, misas, inscripciones a cadenas digitales de TV.
<b>Diru-laguntza zabaltzea:</b>	<b>Difusión de la subvención:</b>
Onuradunak diru-laguntza zabaldu beharko du, modu honetara:	Zaharren biltokia deberá dar difusión a la subvención concedida de la siguiente forma:



<p>Ekitaldia ospatuko den tokian jarriko den publizitatean jasota utziko da Irurako Udalaren parte-hartzea.</p>	<p>En la publicidad que se coloque en el lugar de celebración del evento se hará constar la colaboración del Ayuntamiento de Irura.</p>
<p>Etkez etxe banatuko diren programetan, liburuxketan eta iragarki-tauletan jasota geratuko da Irurako Udalaren parte-hartzea.</p>	<p>En los programas, folletos... que se repartan en el hogar/paneles se hará constar la colaboración del Ayuntamiento de Irura.</p>
<p><b>Onuradunaren betebeharrak</b></p>	<p><b>Obligaciones de la beneficiaria</b></p>
<p>Hitzarmena sinatu aurretik, onuradunak egiaztatu beharko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean dituela eta ez daukala ordainketarik egin gabe diru-laguntzen itzuleragatik; halaber, egoera horiek egiaztatzeko ziurtagiriak erantsi beharko ditu, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak eta eskumeneko Ogasunak igorritakoak. Baldintza hori mantendu beharko da diru-laguntza egiaztatu arte, eta hori ez betetzeak diru-laguntzaren galera ekarriko du.</p>	<p>Previo a la firma del convenio la beneficiaria declara que se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones, acompañada de certificaciones acreditativas de tales circunstancias emitidas por la Tesorería de la Seguridad Social y la Hacienda competente. Esta condición deberá mantenerse hasta la justificación de la subvención siendo cusa de pérdida de la subvención el incumplimiento de la misma.</p>
<p>Era berean, hitzarmena sinatu aurretik, onuradunak agiri hauek eman beharko ditu: elkartearen izenean ordezkari gisara jarduteko eskumena duenaren agiria.</p>	<p>Así mismo, previo a la firma del convenio la beneficiaria deberá aportar: información de la capacidad de ejercer la representación de la asociación.</p>
<p>Bankuko kontuaren titulartasunaren egiaztagiria, diru-laguntzaren ordainketa egiteko. Dokumentu hauetako edozeinek balioko du: banku-laburpenaren fotokopiak, libretaren fotokopiak edo banketxeak igorritako ziurtagiriak (ondo beteta eta banketxearen zigiluarekin).</p>	<p>Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria donde realizar el pago de la subvención. Será válido, cualquiera de los siguientes documentos: fotocopia del extracto bancario, fotocopia de la libreta, certificado expedido por la entidad bancaria, debidamente cumplimentado y sellado por la entidad bancaria.</p>
<p><b><u>BOSGARRENA.-</u> Bateragarritasuna eta bateraezintasuna beste diru-laguntza batzuekin.</b></p>	<p><b><u>QUINTA.-</u> Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.</b></p>
<p>Diru-laguntza hauek helburu berdineko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin bateragarriak izango dira, nazioko edo Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik badatoz, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada betiere, diru-laguntza edo laguntza horien araudi erregulatzailleak ezar dezakeena alde batera utzita.</p>	<p>Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actividad subvencionada, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.</p>
<p><b><u>SEIGARRENA.-</u> Diru-laguntza ordaintzeko epea eta modua.</b></p>	<p><b><u>SEXTA.-</u> Plazos y modos de pago de la subvención.</b></p>
<p>Diru-laguntza 2 ordainketetan banatuko da: % 70 hitzarmena sinatzean, eta gainontzeko % 30 kontu egiaztagiria aurkeztu eta egiaztatu eta gero.</p>	<p>La subvención se distribuirá en 2 pagos: el 70 % a la firma del convenio y el restante 30 % tras la presentación y comprobación de la cuenta justificativa.</p>
<p><b><u>ZAZPIGARRENA.-</u> Bermeen araubidea.</b></p>	<p><b><u>SEPTIMA.-</u> Régimen de garantías.</b></p>

<p>Onuradunari ez zaio berme-prestaziorik exijituko, ez baita hitzarmen honen pean onartu dituen obligazioak ez betetzeko arriskurik antzematen.</p>	<p>No será exigible la prestación de garantía por parte de la beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.</p>
<p><b><u>ZORTZIGARRENA.-</u></b> Onuradunak diru-laguntzaren xedea betetzen duela egiaztatzeko eta jasotako funtsak gauzatzeko epea eta modua.</p>	<p><b><u>OCTAVA.-</u></b> Plazo y forma de justificación por parte de la beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.</p>
<p>Jarduera burutzeko edo funtsak gauzatzeko epea urte bakoitzeko abenduaren 30ean amaituko da. Eta onuradunak diru-laguntza eman zeneko xedea betetzen dela egiaztatzeko epea eta jasotako funtsak gauzatzeko epea urte bakoitzeko urtarrilaren 31n amaituko da.</p>	<p>El plazo para la realización de la actividad o aplicación de los fondos finalizará el 30 de diciembre de cada año. El plazo de justificación por parte de la beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos finalizará el 31 de marzo de cada año.</p>
<p>KONTU EGIAZTAGIRI bidez justifikatuko da, eta agiri hauek bilduko ditu:</p>	<p>La forma de justificación será mediante la modalidad de CUENTA JUSTIFICATIVA, que contendrá los siguientes documentos:</p>
<p>Diru-laguntzaren emakidarako ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko <b><u>jarduerarako memoria,</u></b> egin diren jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita utziz.</p>	<p><b><u>Memoria de actuación</u></b> justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.</p>
<p><b><u>Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda sailkatua.</u></b></p>	<p><b><u>Balance de gastos e ingresos de las actividades subvencionadas.</u></b></p>
<p>Jarduerako <b><u>gastuen zerrenda sailkatua</u></b> eta dokumentuaren eta hartzekodunaren identifikazioa, zenbatekoa eta jaulkipen-data.</p>	<p><b><u>Relación clasificada de los gastos</u></b> de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe y fecha de emisión.</p>
<p><b><u>Egiaztagiri originalak edo haien fotokopia konpultsatuak,</u></b> fakturak edo ordezkoko agiriak, ordainagiriak eta baita ere nominak, zergak eta Gizarte Segurantzaren kuotak, eta agiri frogabaliokideak, trafiko juridikoan baliozkoak edo egindako gastua egiaztatzeko eraginkortasun administratiboa daukatenak, gastuen eta diru-sarreraren zerrenda sailkatuan esleitutako ordenazentzakiaren arabera.</p>	<p><b><u>Originales o fotocopias compulsadas de documentos justificativos,</u></b> facturas o documentos sustitutivos, recibos, incluso nóminas, tributos y cuotas a la Seguridad Social y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico o con eficacia administrativa acreditativos del gasto realizado, ordenados correlativamente según el número de orden asignado en la relación clasificada de los gastos e ingresos.</p>
<p><b><u>Onuradunak egiaztatu beharko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean dituela,</u></b> Gizarte Segurantzako Diruzaintzak eta eskumeneko Ogasunak igorritakoak.</p>	<p><b><u>Certificaciones acreditativas de estar al corriente de tributos y cuotas de la Seguridad Social,</u></b> emitidas por la Tesorería General de la Seguridad Social y la Hacienda competente.</p>
<p><b><u>BEDERATZIGARRENA.-</u></b> <b><u>Hizkuntza-baldintzak.</u></b> Ezarritako komunikazio-elementu guztiak (kanpainak, komunikazio korporatiboak, iragarkiak) euskaraz edo bi hizkuntzatan egongo dira (euskara eta gaztelania). Azkeneko kasu horretan, euskarak lehentasuna edukiko du. Eta ildo horretatik:</p>	<p><b><u>NOVENO.-</u></b> Condiciones lingüísticas. Todos los elementos de comunicación establecidos (campañas, comunicaciones corporativas, anuncios) serán en euskara o en bilingüe (euskara y castellano). En este último caso, el euskara tendrá preferencia. Y en este sentido: -Animar a que la tramitación administrativa, se haga en euskara.</p>



<p>-Administrazioko izapideak euskaraz egitera animatu nahi zaituztegu.</p> <p>Jardueretan kalitatezko euskara erabiltzea eta sustatzea: idatziak, hizlarien hizkuntza-kalitatea zaintzea...</p> <p>-Erabiltzaileei trabarik ez jartzea jardueretan euskaraz mintzatzeko.</p> <p>Edonola ere, hiritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.</p> <p>Edonola ere, Udaleko Euskara Sailak xede horiek betetzen lagunduko du.</p>	<p>En las actividades fomentar a emplear el euskara y que sea de calidad: escritos, cuidar la calidad de lingüísticas de los/las conferenciantes...</p> <p>-No poner trabas a que los/las usuarios/as se expresen en euskara en las actividades.</p> <p>En todo caso, garantizar los derechos lingüísticos de los/las ciudadanos/as.</p> <p>En todo caso, el Departamento de euskara del Ayuntamiento colaborará en el cumplimiento de estos objetivos.</p>
<p><b><u>HAMARGARRENA.- Genero-berdintasuna.</u></b></p> <p>Jarduerak gauzatzean, genero-berdintasuna bermatuko da, eta, ildo horretatik:</p> <p>-Ez dira hizkuntza eta irudi sexistak erabiliko.</p> <p>-Agerpen publikoetan bermatuko da elkartearen ordezkaritza berdintasunezko izan dadila.</p> <p>-Elkartearen jardueretan bermatuko da parte-hartzaileen datuak generoaren arabera bilduko direla.</p>	<p><b><u>DECIMO.- Igualdad de Género.-</u></b></p> <p>En el desarrollo de las actividades, se garantizará la igualdad de género y en este sentido:</p> <p>-No se utilizará lenguaje o imágenes sexistas.</p> <p>-En las apariciones públicas se garantizará que la representación de la asociación sea igualitaria.</p> <p>-En las actividades de la asociación, se garantizará que los datos de los participantes, se recojan separados por género.</p>
<p><b><u>HAMAIKAGARRENA.- Lokalaren erabilera lagatzea.</u></b></p> <p>Aipatu diren jarduerak burutzeko, Udal honek Share kaleko 7 zenbakian daukan lokalaren erabilera dohainik lagatzen du, baldintza hauek betetzen badira betiere:</p> <p>a)Lagapenak urtebeteko iraupena edukiko du, eta urtebeteko epeetan automatikoki luzatuko da, 2026ko abenduaren 31ra arte.</p> <p>b)Mantentze, konpontze eta garbitasun gastuak (elektrizitatea, gasa, ura) Udalaren kontura izango dira.</p> <p>Edonola ere, lagapen-hartzaileak betebeharrak hauek edukiko ditu: lokala higiene-baldintza onetan mantentzea, behar den erabilera ematen zaiola zaintzea, eta hirugarrenei enbarazurik ez egitea.</p> <p>c)Lokala onuradunaren xedeak betetzeko erabiliko da soilik, lagapen hori justifikatzen badute behinik behin.</p> <p>d)Lagapenaren iraungitzeko arrazoiak izango dira, lagapen-denbora betetzeaz aparte, honako hauek:</p> <p>-Betebeharrak larriki haustea.</p> <p>-Interes publikoko zirkunstantziak bat-batean gertatzea, eta horien ondorioz Udalak lokala berreskuratzea behar izatea. Azkeneko kasu horretan, 3 hilabeteko epea emango da gutxienez lokala Udalaren eskura jartzeko.</p> <p>Udalak, baliabideak optimizatze aldera, lokala erabili ahal izango du elkartearen jarduerak oztopatu gabe, 3. Adina/ezgaitasun edo mendekotasuna dutenen udal eskumenak burutzeko.</p>	<p><b><u>UNDECIMA.- Cesión de uso del local.</u></b></p> <p>Para el desarrollo de las actividades citadas, este Ayuntamiento cede el uso gratuito del local municipal sito en Share Kalea 7, con las siguientes condiciones:</p> <p>a) La cesión tendrá una duración anual, prorrogable automáticamente, por periodos anuales hasta el 31 de diciembre de 2026.</p> <p>b) Los gastos de mantenimiento (electricidad, gas, agua), conservación, reparación y limpieza será a cuenta de este Ayuntamiento.</p> <p>En todo caso, serán obligaciones del cesionario el mantener el mismo en buen estado de higiene, observar la diligencia debida en el uso del mismo, y no causar molestias a terceros.</p> <p>c) El local se utilizará exclusivamente para el cumplimiento de los fines del beneficiario y que justifican la cesión.</p> <p>d) Serán causas de extinción de la cesión, aparte del cumplimiento del tiempo de cesión, las siguientes:</p> <p>-Incumplimiento grave de sus obligaciones.</p> <p>-Sobreenir circunstancias de interés público que hagan necesaria la recuperación del local por el Ayuntamiento. En este último caso, se concederá un plazo mínimo de 3 meses, para la puesta a disposición del local a favor del Ayuntamiento.</p> <p>El Ayuntamiento, queriendo optimizar los recursos, podrá disponer del local, siempre sin obstaculizar las actividades de la asociación para llevar a cabo servicios de competencia municipal con colectivos de 3ª edad, discapacidad o dependencia.</p>
<p><b><u>HAMABIGARRENA.- Datu pertsonalak babestea.</u></b></p>	<p><b><u>DUODECIMA.- Protección de datos de carácter personal.</u></b></p>
<p>Hitzarmen hau sinatzean, sinatzaileak aitortu du</p>	<p>Con la firma del presente convenio, el/la firmante</p>

ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oso- osorik onartzen dituela han jasotako baldintzak eta obligazioak.	declara que reúne todos los requisitos establecidos en el mismo y que acepta íntegramente las condiciones y obligaciones recogidas en él.
Era berean, sinatzaileak adierazi du Irurako Udalari emandako datu pertsonalak bere onespenarekin jasota geratu direla, eta ontzat ematen duela datu horiek tratamendu automatizatuaren xede izan daitezela eta Irurako Udalaren fitxategi zilegituetan gorde daitezela.	Así mismo, el/la firmante manifiesta que los Datos Personales facilitados al Ayuntamiento de Irura son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Irura.
Sinatzaileak aitortu du hitzarmen hau sinatzeko emandako informazioa egiazkoa dela eta ez dela isilean gorde edo aldatu.	La firmante declara que la información facilitada para la firma de este convenio es cierta y que no ha sido omitida o alterada.
Sinatzaileak baimena ematen dio Irurako Udalari jarduera hauetarako:	La firmante autoriza al Ayuntamiento de Irura:
Datu pertsonak udal- kudeaketarako bakarrik erabil daitezela, eta behar izanez gero beste Herri Administrazioei edo hirugarrenei laga edo jakinaraz diezazkietela, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzetan.	A que el uso de dichos datos de carácter personal se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.
Beharrezkoak diren kontsulta guztiak egin daitezela udalaren edo beste Herri Administrazioen arlotako eta sailtako fitxategietan, hitzarmen honen xede den diru-laguntza behar bezala kudeatzeko garrantzizko informazioa jasotzeko.	A realizar todas las consultas que fueren necesarias en los ficheros de las áreas y departamentos municipales u otras Administraciones Públicas, a fin de obtener la información que resulta relevante para la correcta gestión de la subvención objeto de este convenio.
Amaitzeko, sinatzaileak aitortu du behar bezala informatu zaiola eman dituen datuak atzitzeko -eta, hala badagokio, haien zuzentzea, aurkaratzea edo ezeztatzea eskatzeko- aukerari buruz, lehen adierazitako Legeak ezarritako baldintzetan; horretarako, idatzizko komunikazioa bidal diezaioke Irurako Udaleko tratamenduaren arduradunari, datu hauekin: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskaeraren zehaztapena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.	Finalmente el/la firmante declara que ha sido debidamente informado/a de la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada anteriormente, pudiendo dirigir una comunicación escrita al responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Irura, con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.
<b>HAMAHIRUGARRENA.- Auziak.</b>	<b>DECIMOTERCERO.- Cuestiones litigiosas.</b>
Hitzarmen honetatik erator daitezkeen auziak, haien izaera juridiko- administratiboa ikusita, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende egongo dira.	Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico- administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.
Eta adostasunaren seinale, hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goian adierazitako tokian eta datan.	Y en prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

## 5.- IRURAKO UDALA ETA TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAREN “OPORRAK BAKEAN” EGITASMOAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA..

Alkateak hartu du hitza eta aurrekariak azaldu ditu, halaber, Irurako dirulaguntzen plan estrategikoan jasoa dago. Jarraian bozkara pasa dira. Hitzarmenak honela dio:



2023DILG0004

### UDALBATZARI PROPOSAMENA

**GAIA:IRURAKO UDALA ETA TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAREN “OPORRAK BAKEAN” EGITASMOA AURRERA ATERATZEKO HITZARMENA.**

Pandemia garaiak bukatu eta Tolosaldea Sahararekin elkarteak, urteroko Oporrak Bakean egitasmoarekin jarraitzen du, proiektuak babesa izan dezan, Irurako Udalak 2022-2024 dirulaguntzen plan estrategikoan jasoa dauda elkarteari bideratzeko 500€ko dirulaguntza.

Hori horrela eta indarrean dagoen araudiak horrela ahalbidetuta, ondorengo hitzarmena sinatzea proposatzen da:

### BILDURIK

Iruran, sinaduraren egunean

Batetik, Gorka Murua Macuso Jn, 44142319Y NAN zenbakiarekin Irurako Udalaren izenean eta bestetik Elixabet Eizagirre Gil, 72499384A NAN zenbakiarekin Tolosaldea Sahararekin elkartearen izenean (G20760799 NIF zenbakiarekin) bildurik.

Bi aldeek elkarri jarduteko eta hitzarmen hau burutzeko gaitasuna aitortzen diote eta honakoak adierazten dituzte:

1. Irurako Udalak “Oporrak bakean 2023” programan parte hartzeko erabakia hartu du.
2. Irurako udalak, Tolosaldeako Oporrak Bakean programa kudeatzeko personal gastuak bere gain hartzen ditu, martxotik aurrera teknikari bat eta itzultzaile bat (ekaina eta abuztu tartean) kontratatuz.
3. Irurako udalak, Tolosaldeako Oporrak Bakean programaren baitan haur bati dagozkion gastuak 1011 €koak direla adierazten da.
4. Irurako Udalak, 500 €ko laguntza eskaintzeko konpromezua hartzen du.
5. Diru kopuru hau Tolosaldea Sahararekin elkarteari helaraziko zaio, honek egin beharreko ordainketak egiteko. Ordainketa honako kontu korronte zenbakian egingo da: Kutxabank2095 5081 93 1062503346
6. Tolosaldea Sahararekin elkarteak, egindako gastu osoaren justifikazioa egingo du 2024ko martxoak 31a baino lehen. Justifikazio horretan, izan diren beste sarrerak edo dirulaguntzak zerrendatuko dira, zenbatekoa eta jatorria adieraziz. Soberakin bat gertatuko balitz, dirulaguntza eman duten entitateei itzulketa egingo zaie, emandako diru-laguntzen proportzioen arabera.

Hitzarmen honetan adierazitakoa onartzen dugula adierazteko, hitzarmen honen bi ale sinatzen ditugu adierazitako egun eta lekuan.

Elixabet Eizagirre, Tolosaldea Sahararekin elkartearen izenean  
Gorka Murua Macuso, Irurako Udalaren izenean

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

**6.- GALDE-ERREGUAK.**

Alkateak Udalbatza bukatu aurretik 2023/106 Dekretuaren inguruan azalpenak eman nahi izan ditu: Dekretu horretan herritar batek duen lokalari Zabor tasa ez aplikatzearen erabakia hartzen da.

Horren harira, Alkateak adierazi du, herritar honek egindako kontsulta dela eta, Iruran izaera bereko lokaletan egoera ezberdinak daudela konturatu direla eta horregatik erabaki duela zabor tasa ez kobratzea.

Halaber, ordenantzaren berrikuspena eta aldaketa egingo dela, herritarren artean egoera desorekatu hauek salbuesteko asmoz.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:20tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**